

Payada, punto cubano eta bertsolaritza saioa, Donostiako Antzoki Zaharrean

Urriaren 14an izango da emanaldia. Araceli Argüello payadore argentinarra, Tomasita Quiala repentista kubatarra eta Amets Arzallus, Jone Uria eta Julio Soto bertsolariak ariko dira kantuan.

Sarrerak jada eskuragai daude www.donostiakultura.eus atarian eta leihatilan.

Nazioarteko Inprobisatzaileen Birak gurera ekarriko ditu Tomasita Quiala eta Araceli Argüello Kubako eta Argentinako inprobisatzaileak. Bertsolariekin batera, sei emanaldi eskainiko dituzte eta horietako bat Donostiako Antzoki Zaharrean: bira itxiko duen emanaldia, hain zuzen.

Amets Arzallus, Jone Uria eta Julio Soto izango dituzte lagun payadore argentinarrak eta repentista kubatarrek. Iker Iriarte arduratuko da saioa gidatzeaz. Emanaldia urriaren 14an izango da, 19:00etatik aurrera, eta sarrerak jada eskuragai daude www.donostiakultura.eus atarian eta leihatilan.

Mintzola Ahozko Lantegiak eta Lanku Kultur Zerbitzuek antolatu dute bira, Donostia Festak eta Donostia Kulturarekin elkarlanean eta Donostia 2016ren babesarekin.

Informazio gehiago **www.mintzola.eus** webgunean.

Kantu inprobisatuen arteko nahasketak

Bertsolaritza Euskal Herrian bezala, beste hainbat herrialdeetan ere ahozko kulturak bizirik eutsi dio neurri handiago edo txikiagoan eta kantu inprobisatuak dituzte: tartean dira Argentina eta Kuba, baina ez dira ahaztu behar Mexiko, Sardinia, Katalunia...

Horiek elkartzeko emanaldiak egin izan dira etxean zein kanpoan; besteak beste, urrunera joan gabe, Donostian egin ziren 2016ko Kultur Hiriburutza tarteko Europa bat-batean delako topaketak.

Kantu inprobisatu hauen guztien inguruko informazio gehiagorako, www.mintzola.eus webgunean dagoen munduko kantu inprobisatuari buruzko mapan.